

arteka



**MOLDEKATU
ETA AHOKATU**

GEDAR

— **B**ada, modu horretan, hezkuntza publikoa proletarizaziorako estatu-tresna bilakatzen da: hezkuntzaren kostuak txikitzen ditu Kapitalaren berrantolaketa produktiboarekin bat eginez, hezkuntza esparru errentagarri bat bilakatuz, ondoren kapital pribatuek, krisi garaian, gainbalioa erauz dezaten, ondare eta aurrezkien desjabetze bidezko klase ertainaren pobretzea gauzatuz. Hau da, hezkuntza publikoak, edo estatu-hezkuntzak, kapitalisten onurarako erreformen bitartez, lur-eremua prestatzen du esplotazio kapitalistaren hedapenerako. Eta hori da hezkuntza publikoaren zeregin nagusia, kapital pribatuen esplotaziorako bitarteko izatea, bai esparru publikoa bera antolatzen denean, bai, halabeharrez, Kapitalaren mugimenduaren forma zehatza izanagatik, esparru pribatuaren mesedetan desegiten denean ere

Edukia Contenido

6

10

26

42

52

EDITORIALA

Arteka

**Hezkuntza publikoa:
proletarizaziorako
estatu-tresna**

ELKARRIZKETA

Joanex Artola
eta Eider Caballero,
Ikasle Abertzaleak
antolakundeko
kideak

**Hezkuntza erreformen
olatuaren aurrean**

REPORTAJE

Jose Castillo

**El asalto del capital privado
a la universidad pública**

KOLABORAZIOA

Naiale Garin

**Hezkuntzaren masa
izaera galbidean**

ERREPORTAJEA

Mattin Aranburu

**Errepresioa hezkuntza
esparruan: azken
urteetako kronika**

Hezkuntza publikoa: proletarizaziorako estatu-tresna

Editoriala

Martxoaren 24rako grebara deitu ditu ikasleak Ikasle Abertzaleak, *Hezkuntza erreformak gelditu* lelopean. LOSU, LOMLOE eta Lanbide Heziketarako Legearen aurrean mobilizatuko dira ikasleak. IAren arabera, erreforma horiek ikasketa-baldintzak okertuko dituzte eta kontrol soziala nahiz lan-praktikak areagotuko dituzte, besteak beste.

Testuinguru politiko berdintsuan, beste auzi hau dago mahai gainean: hezkuntzaren elitizazioa, edo hezkuntzarako sarbidearen zailtasun areagotua pribatizazio-prozesuaren bitartez. Auzi biak, IAren mobilizazioetan landuko dena eta aipatu berri duguna, estuki lotuta daude. Izan ere, biak ala biak, lan-esparruko berrantolaketa produktiboaren arabera hedatzen ari diren prozesuak dira: alde batetik, erreforma berriek lan-baldintza berrietara egokitu behar dute hezkuntza; bestetik, pribatizazioa, orokorrean, Kapitalaren metaketa-behar berrien arabera antolatzen den prozesua da, edo behar horiek berauek hartzen duten forma zehatzetako bat baino ez da.

Lan-esparruko berrantolaketa aipatzen denean, zera esan nahi da: Kapitalaren metaketa-ziklo berri baten baldintza tekniko-produktiboak ezartzen

Biak ala biak, lan-esparruko berrantolaketa produktiboaren arabera hedatzen ari diren prozesuak dira: alde batetik, erreforma berriek lan-baldintza berrietara egokitu behar dute hezkuntza; bestetik, pribatizazioa, orokorrean, Kapitalaren metaketa-behar berrien arabera antolatzen den prozesua da, edo behar horiek berauek hartzen duten forma zehatzetako bat baino ez da

ari diren honetan, ezinbestekoa da horren arabera jardungo duen subjektibitate produktiboa antolatzea; hots, langile klasea behar horietara moldatzea. Izan ere, ekoizpen-baldintza berriek langile klasearen esplotazioa areagotzea dute xede, hau da, burgesiaren irabaziak handitzea lanaren esplotazio handituaren bitartez.

Horretan oinarritzko funtzioa betetzen du hezkuntzak, langile klasearen subjektibitate produktiboaren ekoizpen-esparru gisa. Eta ez soilik subjektibitate zehatz bat ekoizten duelako –lan-indar merkantzia–, zeina prest aurkezten baita lan-merkatuan, saldua izateko. Subjektibitate horren ekoizpen-modua ere baden heinean, bere balioan ere eragin zuzena du hezkuntzak.

Lehenaren eragina bistakoa da: lan sinplifikatu zehatzetara gero eta hobeto egokitu, orduan eta produktiboagoa izango da langilea. Hori jakin badakite enpresa pribatuek. Horregatik, horietako askok ikasgai zehatzak eskaintzen dituzte hezkuntza-zentro desberdinetan, edo beren hezkuntza-zentro propioak sortzen dituzte, edota indarrean daudenekin itunak sinatzen dituzte beren enpresentzako langileak hezi ditzaten. Bada, hezkuntzaren esparrura zabaltzen da kapitalisten arteko konpetentzia, lan zehatzetara egokiago moldatzeko

gaitasunak egiten baititu kompetenteago eta, ondorioz, errentagarriago, zentzu honetan: batez bestekoa baino produktiboagoa den langile kolektibo batek balio handiagoa sortzen du lan unitate bakoitzeko. Horrek ateak irekitzen dizkio elitizazioari edota hezkuntzaren pribatizazioari, hau da, enpresa zehatzen interes pribatuen arabera antolatzen den hezkuntzari.

Bigarrenarekin lotuta, hezkuntza lan-indarraren ekoizpen-esparrua den heinean, Kapitalaren ekoizpen-moduaren arabera antolatzen da. Bere funtzioa Kapitalarentzat egokiena den langilea ekoiztea da, ahalik eta modu egokienean. Lan-prozesu teknologizatuek lana sinplifikatzen duten bezala, lan hori gauzatuko duen langilearen hezkuntza sinplifikatzen dute, hau da, langile baten ekoizpen-kostua txikitzen dute, lan-indarraren balioa txikituz.

Kasu bietan ondorioa hau da: langileak kontratatzea merkeagoa bada, edota merkeago ez izanda ere bere lanordua produktiboagoa bada, lanaren produktuaren zati handiago bat bereganatuko du kapitalistak.

Kapital pribatuek hezkuntza publikoan egindako inbertsioak, gainera, prozesu horren gainean duten kontrola areagotzea dakar, zertarako eta hezkuntza publikoak beren intereserako egokiena

Kapital pribatuek hezkuntza publikoan egindako inbertsioak, gainera, prozesu horren gainean duten kontrola areagotzea dakar, zertarako eta hezkuntza publikoak beren intereserako egokiena den lan-subjektibitatea ekoiztu dezan, ondorengo formazioa ahalik eta gehien murriztu dadin –edukian bederen, nahiz eta formalki luzatu egiten den, besteak beste, soldata txikiagoa justifikatzeko–, eta, ondorioz, kapital pribatuaren kostuak txikitu daitezzen

den lan-subjektibitatea ekoiztu dezan, ondorengo formazioa ahalik eta gehien murriztu dadin –edukian bederen, nahiz eta formalki luzatu egiten den, besteak beste, soldata txikiagoa justifikatzeko–, eta, ondorioz, kapital pribatuaren kostuak txikitu daitezzen.

Horrek denak, hau da, lanaren sinplifikazioaren bidez hezkuntza sinplifikatzeak, eta kapital pribatuen hezkuntza publikoaren gaineko kontrol area-gotuak, bada, hezkuntza-kostuak txikitzea dakar. Horregatik, kapitalistek hezkuntzan esku hartzea, Kapitalak berak inposatzen duen ezinbestekotasuna da. Pribatizazioarekin aldatzen dena, esku hartzeko modua da.

Lehenago aipatu da, zentzu horretan, pribatizazioa Kapitalaren metaketak hartzen duen forma zehatzetako bat dela. Beste forma bat da publikatzea. Bata edo bestea gailentzea, kapital pribatuen metaketa-beharren arabera da, hau da, hezkuntzaren errentagarritasun-mailaren arabera da. Kontua ez da, beraz, lehenago Kapitalari lur-eremua irabazi izan zaionik, estatu-esparruko zerbitzu publikoak indartuta. Kontrara, kontua da, lehenago zerbitzu publikoak indartu izan badira, hori Kapitalarentzat onuragarria zelako izan dela –goranzko ziklo produktibo batean, lan-indarraren prezioak

handitzera jotzen duelako eta, horregatik, kostuak elkarbanatzen dituztelako kapitalistek, erreproduzioaren esparruan arlo produktiboa eratzeko ezintasuna dela-eta–, eta modu berean desartikulatzen ari direla orain; horrela ari da esparru pribatua lur-eremua irabazten. Izan ere, esparru publikoa kapitalistek beraien zeregin komunetarako antolatzen duten esparrua da, interes partekatuen esparrua, non lehentasuna lan-indarraren ekoizpenaren kostuak txikitzea den, eta guztien artean arduratzea horretaz, kapital pribatuen esplotazioarako eremu errentagarri bat ez den artean.

Egoera aldatzen denean, ordea –lan-indarraren balioa neurri bateraino txikitzen denean, eta lehen errentagarria ez zen adar bat errentagarri bilakatzen denean esplotazio pribaturako, hau da, Kapitalaren balorizazioarako–, zerbitzu publikoak desegiten dira, esparru horiek Kapitalaren metaketarako esparru bilakatuz. Egoera hori krisi kapitalistarekin batera azaleratzen da eta are gehiago larriagotzen da, berarekin batera gastu publikoa txikitzen delako eta Kapitalaren irabazi-beharrak premiazkoak bihurtzen direlako.

Krisi kapitalistak, alde batetik, Kapitalaren suntsitze orokortua dakar. Bestetik, kapital pribatuen zeregin komunean, hots, Estatuan, gatazkak sortzen

Egoera aldatzen denean, ordea –lan-indarraren balioa neurri bateraino txikitzen denean, eta lehen errentagarria ez zen adar bat errentagarri bilakatzen denean esplotazio pribaturako, hau da, Kapitalaren balorizaziorako–, zerbitzu publikoak desegiten dira, esparru horiek Kapitalaren metaketarako esparru bilakatuz. Egoera hori krisi kapitalistarekin batera azaleratzen da eta are gehiago larriagotzen da, berarekin batera gastu publikoa txikitzen delako eta Kapitalaren irabazi-beharrak premiazkoagoak bihurtzen direlako

dira, errentagarritasun txikitu baten testuinguruan Estatuak berak kostu handiak dakarzkionlako krisian den Kapitalari. Azkenik, lan-indarraren prezioaren txikitze orokortua dakar krisi kapitalistak. Horrek denak abagune berri bat irekitzen du, kapital pribatuek hezkuntzaren gaineko kontrola antola dezaten. Izan ere, gastu publikoaren murrizketak eta lan-indarraren prezioaren txikitzeak –zeinaren prezio altu erlatiboa arrazoi baitzen hezkuntza publikoa antolatzeko–, zerbitzu sozialen esparruan Kapitalaren adar produktibo berri bat antolatzeko aukera irekitzen du, klase ertainaren aurrezkietan aurkitzen duena bere diru-iturrien jatorria, hala nola, kapital pribatuen inbertsioetan.

Bada, modu horretan, hezkuntza publikoa proletarizaziorako estatu-tresna bilakatzen da: hezkuntzaren kostuak txikitzen ditu Kapitalaren berrantolaketa produktiboarekin bat eginez, hezkuntza esparru errentagarri bat bilakatuz, ondoren kapital pribatuek, krisi garaian, gainbalioa erauz dezaten, ondare eta aurrezkien desjabetze bidezko klase ertainaren pobretzea gauzatuz. Hau da, hezkuntza publikoak, edo estatu-hezkuntzak, kapitalisten onurarako erreformen bitartez, lur-eremua prestatzen du esplotazio kapitalistaren hedapenerako. Eta hori da hezkuntza publikoaren zeregin nagusia,

kapital pribatuen esplotaziorako bitarteko izatea, bai esparru publikoa bera antolatzen denean, bai, halabeharrez, Kapitalaren mugimenduaren forma zehatza izanagatik, esparru pribatuaren mesedetan desegiten denean ere. Prozesu hori, ordea, norabide batean edo bestean joan, ez da Estatuaren erabaki bat, hori ere ez baita Kapitalaren metaketa-beharrak moldatzen den tresna politiko-administratibo bat besterik. Ekoizpen-modu kapitalistaren antolaketa tekniko-produktiboak zehazten du prozesu horren nolakotasuna, eta bere adierazpen bat baino ez da. ●

Hezkuntza erreformen olatuaren aurrean

10

Joanex Artola
eta Eider Caballero

Ikasle Abertzaleak

Irudia — **Erik Aznal**



Ikasle Abertzaleak antolakundeko Joanex Artola eta Eider Caballero kideekin izanda GEDAR LANGILE KAZETA eta, besteak beste, hezkuntza erreforma berriez galdetu die. Martxoaren 24an greba egingo dute ikasleek erreforma horien kontra, eta hezkuntza sistema sozialistaren eraikuntza aldarrikatuko dute aterabide bakar modura.



Hezkuntza erreforma olatu berri bat izaten ari da Espainiako Estatuan, ikasketa prozesuko maila

guztietan: LOMLOE LOMCE ordezkatzan ari da iaztik, onartu dute Lanbide Heziketarako Legea, eta LOSU berandu baino lehen martxan jarri nahi dute unibertsitateetan. Zeri erantzuten dio horrek guztiak?

Joanex Artola: Hezkuntza sistema ez dago gizarte kapitalistaren dinamiketatik salbu, eta beraz, gizarte kapitalistarekiko menpekoa da. Horregatik, ekoizpen eredu kapitalistaren beharren arabera antolatzen da hezkuntza, eta askotan seinالاتu den gisan, ziklo ekonomiko berri baten atarian gaudenez, hezkuntzak dituen funtzioak ere eraberritu egin behar dira. Hori formalizatzeraz datoz hezkuntza erreformak.

Konkretuki, elitizazio prozesu gisa kontzeptualizatu dugu izaten ari den prozesua. Orain artean, hezkuntza ereduaz zerbitzu bezala iristen zen gizarteko geruza ahalik eta gehienengana; orain, ordea, hezkuntzarako sarbidea geroz eta eskasagoa da. Hala, bi esparrutan nabarmentzen da elitizazioa. Batetik, ekonomikoan: gizartearen pobretzea geroz eta handiagoa eta ikastea geroz eta garestiagoa den heinean (tasak nahiz ikasketa materiala garestitzen ari dira), logikoki, proletariotza kanporatua izango da hezkuntzatik. Joera hori oro har gertatzen bada ere, ikusgarriena unibertsitateko kasua dela uste dugu. Bestetik, pedagogiaren esparruan ere ikusten da elitizazioa: ikasketa prozesuaren kalitatea nabarmen jaitsi da, ratioak ez dira egokiak, eta, edukiak baino, etorkizuneko langileak izateko oinarritzko gaitasunak irakasten dira, egun konpetentzia deitzen diren horiek; lehiakortasuna, enpatia eza...



Elitizazio prozesu gisa kontzeptualizatu dugu izaten ari den prozesua, esparru ekonomikoan zein pedagogikoan nabarmentzen ari dena



Eider Caballero: Funtsean, enpresa-egitura bilakatu nahi da eskolaren egitura; enpresaburu modura aurkezten dira ikastetxeetako zuzendaritzak zein unibertsitateetako errektoretzak, eta ikasleak, aldiz, langile modura. Historikoki seinalatu den eskola-fabrika dikotomian sakondu nahi da, dikotomia bera modernizatuta eta XXI. mendera egokituta. Bestela esanda, hezkuntza sistema enpresa-merkatuaren menpe egon da gizarte kapitalistan, zuzenak ez ziren kontrol modalitateen bidez; hau da, estatu burgesaren bidez. Orain, berriz, enpresak hezkuntzaren gaineko kontrol zuzena ari dira aplikatzen, inbertsio handiak eginez. Hortaz, kontrol modalitatea ari da aldatzen, eta enpresei marko juridiko hori baimentzeko testuingurua sortzen dute hezkuntza erreformek.

LOMLOE martxan da iaztik, eta horren neurriak 2023-2024 ikasturtera bitarte joanen dira ezartzen. Zer aldaketa dakartza lege berri horrek? Nori egiten dio mesede eta nori kalte?

E. C: Lege progresista gisa saldu dute LOMLOE, baina LOMCE ordezkatu baino, LOMCE eguneratzen du. Batetik, PSOE-Podemosen norabide ideologikoa ezartzen du hezkuntzan, eta bestetik, ziklo ekonomiko berri batek behar dituen ezaugarriak, hezkuntzaren kasuan irakasgaiak eta balio moralak, finkatzen ditu.

Oro har, digitalizazioa da aldaketa nabarmenetako bat. Aparatu digitalak ordezkatzeko dituzte eskuliburuak eta bestelako ikas materialak; hala, multinazionalak, Microsoftek kasu, egundoko etekinak ziurtatzeko dituzte. Gainera, ikasleон datu ugari geratzeko dira enpresa horien esku, eta salmentarako objektu bihurtzeko dira.

Baina ez da hori bakarrik: kompetentzia digitalen edota Lan Formakuntza eta Orientazioa bezalako irakasgaiak ere pisua hartuko dute. Gure

ustez, lotura argia dago ekoizpen ziklo berriaren beharren eta hezkuntzaren zeregin hezitzailearen artean. Izan ere, bistakoa da teknologia berrietan eta tresna digitaletan oinarritutako dela aipatutako zikloa.

Hori gutxi balitz, pentsamendua garatzeko espazioak, filosofia esaterako, alboratuak izango dira. Gure ustez, pentsamendua landu behar du eskolak, eta beraz, pentsatzen lagundu behar du; irakatsi egin behar du. Adibide zehatz gehiago bila daitezke, baina garrantzitsuena da frogatzea erreformak ez duela erroko aldaketarik ekarriko. Egiturazko arazoei heldu beharrean, aldaketa formalak sustatzen dituen lege bat da; segregazioa edota zerbitzuen eskasia, ordea, ez dira lantzen.

Finean, erreforma aurrerakoi gisa saldu nahi duten horrek, belaunaldi berriak otzantasunean eta lehiakor-tasun kapitalistan hezteko besterik ez du balioko. LOMLOEk, sinpleki esanda, enpresari handiei egingo die mesede eta langileriarri kalte.

***Funtsean, enpresa-egitura
bilakatu nahi da eskolaren
egitura. Bestela esanda,
hezkuntza sistema enpresa-
merkatuaren menpe egon
da gizarte kapitalistan,
estatu burgesaren bidez.
Orain, berriz, enpresak
hezkuntzaren gaineko kontrol
zuzena ari dira aplikatzen,
inbertsio handiak eginez***







Enpresa askok lan indar oso merkea edo doakoa lortzen dute Lanbide Heziketari esker. Zentzu horretan ulertu behar da Lanbide Heziketa Duala derrigorrezko bilakatzeko neurria eta horretan egindako inbertsioa

Lanbide Heziketarako Legea onartu zuen Espainiako Kongresuak 2021eko abenduan, eta norabide berean doaz Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan azken urteetan onartzen ari diren planak. Lanbide Heziketa Dualaren ezarpena da jasotzen den puntu garrantzitsu bat. Zein helbururekin ari dira neurri berri horiek inposatzen? Eta zein mekanismo erabiltzen dituzte?

E. C: Logika berdinarekin, merkatuaren behar berrietara egokitzeko planak dira Lanbide Heziketakoak ere. Aurreko urte batzuetakoarekin alderatuta, ikaragarria da orain Lanbide Heziketan egiten ari diren inbertsioa. Beraz, garrantzi ekonomikoa hartuko duen esparru bat bilakatuko da; hau da, estrategikoa izango da datozen urteetan. Hain zuzen ere, unibertsitatearen gainbeheraren aurrean, pisua irabazten ari da Lanbide Heziketa, eraginkorragoa baita lan munduan sartzeko. Unibertsitateko gradu bat ikasi ostean, master bat ikasi behar da, eta zorionekoa bazara lan bat topatuko duzu, baina zazpi urteko prozesu bat izan daiteke hori. Lanbide Heziketan, aldiz, bi edo hiru urteren buruan lanean hasteko aukerak handiagoak dira. Lan beharraren aurrean, beraz, unibertsitatea baino eraginkorragoa da Lanbide Heziketa. Ez da kasualitatea % 16 igo izana matrikulatutako ikasleen kopurua.

J. A: Bestalde, enpresa askok lan indar oso merkea edo doakoa lortzen dute Lanbide Heziketari esker. Zentzu horretan ulertu behar da Lanbide Heziketa Duala derrigorrezko bilakatzeko neurria eta horretan egindako inbertsioa. Are gehiago, Lanbide Heziketaren pribatizazioaren bidez, enpresek zein kooperatibek zuzenean esku hartzen dute hezkuntzan, eta hitzarmen horientzako erraztasun legalak ezartzea ahalbidetuko du lege berriak. Ikaslanen edota Goierrri eskolaren adibideetara jo genezake, enpresetara lotzen baitira eskulan merkea edo doakoa eskaintzeko finantziazioaren truke. Oro har, industria sektorean gertatzen da hori; hain justu, errentagarriena den sektorean.

Funtsean, ikasteko eskaintza zabalduko dute Modernizazio Plana deitu diotenaren bidez, lan espezializazioa bilatzeko asmoarekin. Geroz eta gazte gehiago nahi dituzte geroz eta jakintza tekniko handiagoarekin, koiunturazko beharrak eta lan premiak asetzeko gaitasuna izateko.

Orokorrean, dirua ez duenak eskubiderik ez duenez, ikasteko eskubidea ere galtzen du. Horregatik, ikastea ere luxu bilakatu daiteke, eta hortaz, ekoizpen nahiz trebezia intelektuala, aberatsen ezaugarri

Unibertsitatei dagokienez, LOSUren aurreproiektua onartu zuten 2021. urtearen amaieran. Zeintzuk dira lege horren oinarri nagusiak?

J. A: Esan beharra dago oraindik ez dagoela zehaztuta LOSUren behin betiko izaera, ez baitago erabat onartuta. Gainera, Espainiako Gobernu-ko ministroa aldatu denez, oraindik eta gehiago atzeratuko da prozesua. Hala ere, ministro aldaketak ez ditu legearen oinarriak ezbaian jarriko, arazoa ez dagoelako politiko baten edo bestearen artean; unibertsitate eta gizarte eredia bera da arazoa. Ildo horretan, uste dugu Bolonia prozesua deiturikoak ezarri zituen oinarri akademiko eta ekonomikoe- tan sakonduko duela LOSUk; izan ere, kreditu sistema, ebaluazio jarraiak eta ez-jarraiak, finantziario pribatuaren gorakada zein ikerketaren pribatiza- zioa izango dira oinarriak.

Bolonia prozesua eta gero, uniber- tsitatea, kontzeptu orokor gisa, fase berri batean sartu zen. Gure iritziz, eredu anglosaxoa Europara ekartze- ko saiakera bat izan zen, eta horren jarraipena baino ez da LOSU. Ezaguna da Castells ministro ohiak 3+2 deitu- rikoa bezalako proiektuak ezartzeko zuen irrika, nolabait, unibertsitatea geroz eta espazio pribilegiatuagoa bilakatzeko. Beraz, unibertsitatearen masa ereduaren dekonstrukzioaren legea izan daiteke orain esku artean dutena.

Orokorrean, dirua ez duenak esku- biderik ez duenez, ikasteko eskubidea ere galtzen du. Horregatik, ikastea ere luxu bilakatu daiteke, eta hortaz, ekoizpen nahiz trebezia intelektuala, aberatsen ezaugarri. Dena den, gra- duala da elitizazio prozesua, uniber- tsitatea ez baita egun batetik bestera hustuko. Baina adierazgarria da, adi- bidez, nola egin duen gora unibertsit- tatean sartu ahal izateko gutxieneko notak, hamar gradutik zazpitan igo da-eta.

Laburbilduz, zer aldatuko du le- geak? Zirriborrea irakurtzen badugu, hitz politetz apaindutako proposamen bat ikusiko dugu; gizartearen beha- rretara egokituko den unibertsitatea duela helburu, berdintasunaren alde- koa izango dena, ideia aurrerakoiak sustatuko dituen, eta abar. Badakigu, ordea, zer esan nahi duen horrek: burgesiaren behar ekonomikoen menpe egongo da unibertsitatea, mu- gimendu emantzipatzaileak zigortuak izango dira, eta ideologia burgesa ez den oro, alboratua.



Neurri gehiago ere atera dituzte mahaira unibertsitateei dagokienez. Unibertsitateko Bizikidetza Legea, esaterako, oraintsu ezarri dute Espainiako Estatuan, eta errepresio politikoan sakontzeko neurri berri bat dela azaldu izan duzue.

J. A: Berez frankismo garaitik biziraun zuen Diziplinamendu Legea abolitzera dator Bizikidetza Legea, eta azkenaldian errepikatzen ari den joera bat azpimarratu nahi dugu horren harira. Gaur egungo Espainiako Gobernuaren itxura progresistak lege eta neurri erreakzionarioenak ere zuritzea lortzen du: pandemiaren aitzakiapean hartu diren neurri autoritarioekin ikusi dugu, lan erreforma-rekin... Berdin gertatzen da Bizikidetza Legearekin, izatez, aurreko legea baino are gogorragoa baita. Besteak beste, jardun politikoa eta militantzia politikoa zuzenean zigortzen ditu espediente akademikoen bidez, baita grebak nahiz piketeak kriminalizatu ere.

Horrek guztiak, gure ustez, eragile instituzional-burgesei soilik ematen die politika egiteko eskubidea, eta gainontzekoon eskubidea legez kanpo uzten du.

Bizikidetza Legeak, besteak beste, jardun politikoa eta militantzia politikoa zuzenean zigortzen ditu espediente akademikoen bidez, baita grebak nahiz piketeak kriminalizatu ere

Eta zein da EAEko hezkuntza legearen inguruan egiten duzuen balorazioa?

E. C: Aipatutako erreforma prozesuaren testuinguruan kokatzen dugu EAEko hezkuntza legea ere; 30 urte eta gero, hezkuntzaren modernizazioa finkatzeko lege gisara, hain zuzen ere. Lege horrek ez du eskolek dituzten erroko arazoak konpontzeko asmorik; esaterako, kalitatearen gainbehera edota segregazioa, kontuan hartuta EAE dela Europako lurralde segregatzaileenetako bat. Funtsean, zenbait aurpegi garbitzeko proiektu bat da legea, ez baitu ia ezer aldatu azkenengo legetik, ezpada egoera okerragotuko duela.

Elementu kezkarriak ditu, halaber, hezkuntza legeak. Enpresa-egituren analogiak izango dira eskolak, eta are botere handiagoa emango zaie ikastetxeetako zuzendaritzeari, inolako kontrol demokratikorik gabe erabaki ditzaten eskola barruko nondik norakoak. Zuzendaritzaren eta enpresaburuaren rolak berdinak izango dira.

Ustez aurrerakoa den ideia baten pean saltzen dute hori guztia; deszentralizazioaren ideia baten pean, alegia. Gure ustez, oso arriskutsua da nahierara jokatzeko joera duten zuzendaritzeari botere-autonomia ematea, jakin badakigu-eta zuzendaritza batzuek nola jokatzeko duten gustuko ez dituzten gauzen aurrean; esaterako, ikasleen greben, etenaldien eta, orokorrean, jardun politikoaren aurrean. Egungo hezkuntza ereduan, deszentralizazioaren defentsa egiteak autoritarismoaren legitimazioa ekar dezake.







Beharrezkoa da hezkuntza sistema sozialistaren alde indarrak metatzea eta hezkuntza burgesaren aurrean alternatiba bat posible dela gizarteratzea

Eskuin zein ezker, neurri horiek ezartzen laguntzen ari dira politikari profesionalak. Esate baterako, lege horiek aurrera ateratzea ahalbidetu du EH Bilduk ere, Lanbide Heziketarako Legearen alde bozkatzuz, eta LOMLOE eta Unibertsitateetako Bizikidetza Legearen inguruko eztabaidan abstenituz. Zer dago jokabide horren atzean?

J. A: Adostasun instituzionala dago hezkuntza erreformei dagokienez, azken buruan, burgesiaren alderdiak baitira den-denak. Interes partikular ezberdinak ordezkatzen badituzte ere, auzi substantzial eta organikoetan ados jartzen dira burgesiaren alderdiak. Testuinguru politiko honetan errepikatzen den eredu da; burgesiaren alderdia *versus* proletariotza.

Are gehiago, zein arrazoi dago LOMCEn kontra egin ziren mobilizazio jendetsuak ez egiteko LOMLOE-ren aurka, eta horietara ez deitze-ko? Argi dago, posizio antagonistak ordezka zitzaketen alderdiak erabat desagertu dira, edo, bestela esanda, dinamika instituzional burgesean txertatu dira. Eta berdin hainbat sindikaturekin eta eragile sozialekin.

Hala ere, joko instituzionaletik harago, uste dugu garrantzitsua dela erdigunean ondokoa jartzea: lege horien balio praktikoa ezdeusa da eta erreformek, bere horretan, ez dute gaitasun errealik aldaketa positiboak lortzeko. Horrenbestez, bi premisa kontuan hartu behar ditugu. Batetik, ez dago egiturazko aldaketa posible-rik marko kapitalistaren barruan, harreman sozial kapitalistek menderatzen baitute hezkuntza. Bestetik, beharrezkoa da hezkuntza sistema sozialistaren alde indarrak metatzea eta hezkuntza burgesaren aurrean alternatiba bat posible dela gizarteratzea. Eta gizarteratzeak esan nahi du, hain zuzen, gehiengoak erreal gisa ikustea bestelako modu batean ikasi eta bizi daitekeela; gizakiaren ahalmenak garatzeko espazioa izan daitekeela hezkuntza, eta ez gutxi batzuen diru-iturriak bermatzeko aparatu bat. ●

El asalto del capital privado a la universidad pública

26

Texto — **Jose Castillo**

Imagen — **Beñat Etxebarria**



Todo el mundo lo sabe, la universidad pública ya no es lo que era. Este reportaje de investigación trata de exponer los aspectos cuantitativos y cualitativos por los que el capital privado está accediendo al control directo de áreas enteras de la universidad pública. Tendencia, que lejos de ser una casualidad, responde a la propia génesis del modelo educativo universitario estatal-capitalista y a la modificación del modelo en épocas de crisis.

Es evidente, junto a otras instituciones sociales, el papel central que juega la educación, y en concreto la universidad, en la reproducción y mantenimiento de las relaciones sociales capitalistas. Esta institución es básica para la reproducción de la futura mercancía fuerza de trabajo, que no son más que los estudiantes que se encuentran actualmente en las aulas y en un futuro cercano engrosarán el mercado laboral o las filas del paro, el ejército de reserva laboral.

Las universidades y los centros de trabajo o producción tienen un tipo de organización similar. Tienden a ser lugares donde se juntan amplias masas humanas bajo un mando burocratizado, impersonal, rutinario y jerarquizado. En ambos lugares, el trabajo se premia mediante incentivos externos, como el salario o las calificaciones académicas. Si el salario rige la inserción social de cierto individuo en la sociedad capitalista, las notas son las que preparan al individuo y marcan su adecuación a los estándares histórico-coyunturales de las necesidades de reproducción del Capital.

Por lo tanto, se puede decir que, en la universidad, como parte de la totalidad del sistema educativo capitalista, se aprenden las relaciones sociales de producción dominantes en la sociedad. Es por ello, que atendiendo a esta definición no cabe distinción alguna entre la universidad pública y privada en cuanto a su último fin de reproducir las condiciones sociales dadas. Ahora bien, ambas difieren en la forma de lograr este fin. Además, cabe destacar, que el principal medio por el que la universidad logra este fin no es solamente mediante la impartición de ciertos temarios curriculares; sino más bien mediante toda una serie de prácticas, rituales, formas de interacción alumno-profesor etc. Que hacen que las relaciones sociales de producción dominantes sean interiorizadas por el alumno inserto en el mundo educativo universitario, rasgo común al sistema público como el privado ^[1].

Si la universidad pública en la reproducción de las relaciones sociales capitalistas atiende a los intereses de la clase capitalista en su conjunto, mediadas por la dirección estatal, la universidad privada respondería a los intereses y necesidades directas de ciertas facciones de capitalistas privados

Sin embargo, como hemos observado, si la universidad pública en la reproducción de las relaciones sociales capitalistas atiende a los intereses de la clase capitalista en su conjunto, mediadas por la dirección estatal, la universidad privada respondería a los intereses y necesidades directas de ciertas facciones de capitalistas privados. Obviamente, como en el capitalismo las distintas facciones del capital están en pugna constante por la conquista de mayores facciones de mercado y capacidades productivas, todos los capitales privados individuales intentan influir en la universidad pública para amoldar las enseñanzas y labores de investigación de esta hacia sus intereses particulares.

Este es el principal motivo de este artículo: entender que, pese a que la universidad pública está guiada por los motivos generales de la sociedad capitalista, mediante la articulación y lucha política organizada del proletariado se han podido instaurar ciertos espacios de libertad de enseñanza, cátedra y cuotas de libertad política que no han existido en las universidades privadas históricamente. Sin embargo, en la época de crisis del capital y ofensiva burguesa que vivimos actualmente, muchas de estas conquistas están en retroceso y uno de los aspectos en los que se ve claramente este retroceso es en la conquista directa de mayores cuotas de poder y control directo de los capitales privados sobre la universidad pública.



Como resultado directo que la crisis capitalista impone en cuanto a contracción del gasto público estatal, las empresas privadas de distinta índole han pasado a ser parte activa de la financiación de las universidades públicas



La Comisión Europea, en un informe de enero de 2001, ya recomendaba que en torno a los dos tercios del gasto en investigación científica se cubriese mediante aportaciones privadas de las empresas

LA PRIVATIZACIÓN: CAUSAS Y CONSECUENCIAS

Podemos situar el inicio de la privatización masiva de la universidad pública en la crisis de acumulación de capital iniciada en la década de 1970. Sin embargo, para el sistema europeo de universidades públicas, una fecha clave de no retorno será la de los planes de inicios del nuevo siglo, allá por los años 2000. Hoy día, como resultado directo que la crisis capitalista impone en cuanto a contracción del gasto público estatal, las empresas privadas de distinta índole han pasado a ser parte activa de la financiación de las universidades públicas. Determinando así amplias áreas investigadoras de la universidad y sus fines económicos.

Además de que esto es una tendencia de largo recorrido impuesta por la Unión Europea a todos sus estados miembros. La Comisión Europea, en un informe de enero de 2001, ya recomendaba que en torno a los dos tercios del gasto en investigación científica, lo que se viene a denominar como I+D+i, se cubriese mediante aportaciones privadas de las empresas ^[2]. Con este objetivo, las empresas privadas subcontratan a departamentos enteros de universidades, condicionan su financiación o crean parques tecnológicos en los mismos campus universitarios mediante el patrocinio directo de estas empresas.

Esta tendencia se evidencia, frente al modelo público que resiste más en el mundo académico latino-mediterráneo, en el mundo universitario anglosajón, donde empresas privadas

han pasado a controlar directamente facultades enteras. Este es el caso de la alianza entre la petrolera británica BP (British Petroleum) y la Universidad de California de Berkeley (la universidad pública más prestigiosa de EE.UU.) para la creación del Energy Biosciences Institute. El cual, durante la última década, mediante la financiación directa de 500 millones de dólares de la petrolera británica, ha llevado a cabo diversas investigaciones sobre biocombustibles creados a partir de cereales modificados genéticamente. Obviamente, a cambio de esta financiación, la petrolera se ha reservado el derecho a explotar comercialmente todos los resultados obtenidos por dichas investigaciones.

De hecho, la cuestión de la libertad del investigador científico es un problema de largo recorrido en la universidad anglosajona. Ya en el año 2002, la revista académica *New England Journal of Medicine* tuvo que ofrecer disculpas públicas porque el comité editorial de la revista se dio cuenta de que la mitad de los artículos publicados desde 1997, en los que se valoraban distintos medicamentos, habían sido escritos por investigadores con vínculos económicos con las farmacéuticas que producían los productos evaluados. De esta manera, la independencia de cátedra y la autenticidad del trabajo de los investigadores quedó en entredicho ^[3].

El que departamentos enteros de investigación de la Universidad dependan directa o indirectamente de la financiación de capitales privados hace que muchos investigadores se vean for-



UNIBERTSITATEAREN
ELITIZAZIOA
GELDITU!



zados a la autocensura con tal de lograr resultados que serán financiados y no aquellos que sean más relevantes para el bien de toda la sociedad. Al respecto, la conocida periodista y escritora canadiense, Naomi Klein, ofrece un ejemplo esclarecedor ^[4]. En 1998, la doctora Nancy Olivieri, una científica de la Universidad de Toronto y especialista en una extraña enfermedad de la sangre, la talasemia, firmó un contrato de investigación con el gigante farmacéutico Apotex. La empresa deseaba que Olivieri estudiara la eficacia de la droga deferiprona en jóvenes pacientes que sufrían talasemia. Cuando Olivieri encontró pruebas de que en algunos casos la sustancia podía tener efectos secundarios peligrosos para la vida, se propuso informar de ello a los pacientes que participaban en el estudio y a los especialistas en la materia. Apotex suspendió la investigación y amenazó con llevar a Olivieri a los tribunales si daba a conocer sus conclusiones, señalando una cláusula del contrato de la investigadora, que ella había olvidado y que le daba a la empresa el derecho a reservarse la publicación de los resultados durante dos años después de la finalización del estudio.

Además, en consonancia con las tendencias mismas del sistema capitalista, el cortoplacismo y el intentar valorizar las inversiones lo antes posible, las grandes corporaciones privadas tienden a priorizar la inversión en investigación aplicada más que en investigación teórica o general. Es decir, tienden a priorizar la financiación de aquellas investigaciones científicas que tienen como objetivo extrapolar resultados directos e inmediatamente aplicables a la industria del momento. En consonancia con esta tendencia, se da una devaluación de las carreras cuyo conocimiento se mueve en el área de las ciencias más sociales y abstractas, tales como pueden ser Filosofía o las filologías en las ramas de humanidades o sociales, o de Bellas Artes en la rama artística.

LA PRIVATIZACIÓN EN EL ESTADO ESPAÑOL

Pese a que como hemos mencionado, el sistema universitario del Estado español se ubica dentro de los sistemas mediterráneos que más han dependido históricamente de la financiación pública que de la privada, esta tendencia comienza a revertirse de manera notoria tras la aprobación del Plan Bolonia en 1999. De hecho, ya en la actualidad, el que hasta hace pocos meses fue ministro de Universidades, Manuel Castells, nunca ha ocultado su admiración por el sistema universitario estadounidense donde el peso de la financiación privada tiene un peso primordial frente a la estatal. Es más, el ministro llegó a declarar literalmente que las universidades públicas y los profesores deben competir entre sí, en vez de cooperar y que la financiación de la Universidad y hasta los sueldos de los profesores deben depender de ello ^[5].

Castells ha puesto en más de una ocasión como ejemplo a la Universidad de California Berkeley, en la que impartió clase de 1979 a 2003. Sin llegar al nivel de las grandes universidades privadas como Harvard o Stanford, que recaudan más de 1.000 millones de dólares anuales en donaciones, la universidad pública californiana consiguió en 2019 un total de 634 millones de dólares con aportaciones de fondos privados, algo parecido al presupuesto entero de la Universidad Complutense de Madrid. Todo este sistema ha sido alabado por el ministro que ha comandado la redacción de la nueva ley de universidades española, conocida por sus siglas LOSU.

De hecho, esta ley fue presentada por el propio Castells desde la Universidad de Barcelona (UB), la que es una universidad paradigmática del cambio de tendencia hacia la privatización del sistema universitario público. En la más prestigiosa universidad pública catalana, las empresas privadas controlan la gran mayoría de cátedras universitarias que *a posteriori* influyen en el temario de las asignaturas de dis-

tintos grados. Por ejemplo, la empresa de seguros privados suiza Zurich firmó en el año 2013 un acuerdo para financiar la cátedra universitaria UB-Zurich, para fomentar la educación y la investigación de «alta calidad» en los campos de las ciencias actuariales ^[6] y las finanzas.

De más largo recorrido es la cátedra firmada entre la UB y el Banco Santander desde el año 2008, la Cátedra de Iniciativa Emprendedora. Esta tiene como objetivo «fomentar la cultura emprendedora en la Universidad, organizar todo tipo de actividades para mejorar la formación y la preparación de los alumnos que estén interesados e impulsar la investigación en este ámbito». Es más, los distintos dirigentes empresariales tienen vínculos directos con los órganos de decisión política de la UB. Ya que, según una investigación publicada en el 2018 por Verónica Landa en *IzquierdaDiario.es*, 8 de los 17 miembros del Consejo Social de la UB estaban relacionados con empresas privadas, multinacionales y tenían una íntima relación con diferentes patronales ^[7].

En otra universidad pública catalana de renombre, como es la Pompeu Fabra, nos encontramos con la Cátedra Mango de Responsabilidad Social Corporativa, financiada efectivamente por la multinacional textil española Mango, acusada en diversas ocasiones de producir sus productos bajo explotación infantil o empleando refugiados sirios de manera ilegal. Alejándonos de Cataluña, llama especialmente la atención la cátedra financiada por el Burger King en la Universidad de Extremadura para «el control de la eficiencia energética», cuyo proyecto inicial era investigar sobre la eficiencia energética, sí, pero la de sus restaurantes.

Volviendo al ámbito de las empresas financieras, el mencionado Banco Santander es una de las entidades financieras que más vínculos tiene en las distintas universidades públicas del Estado español, financiando distintas becas de investigación y áreas

enteras de divulgación académica. Por ejemplo, todo el sistema de cursos de verano y de invierno organizados por la Universidad Complutense de Madrid corre a costa del banco que preside Ana Botín. Además de contar con un sistema que otorga diversas becas en su propia página web, para cuya obtención el alumno debe ceder sus datos privados y académicos al banco. En concreto, el contrato establecido por la Complutense con el Santander permite percibir hasta 5,5 millones anuales a la universidad pública madrileña, la universidad pública más grande de todo el Estado español.

Sin embargo, aún hoy, la gran inversión de los grandes capitales internacionales radica en la compra y control directo de las principales universidades privadas españolas. Ya que en estas pueden ejercer un control directo sin cortapisas estatales. En el año 2019, dos fondos de inversión con sede en Londres compraron sendas universidades privadas en Madrid. El fondo de inversión Pemira se hizo con la Universidad Europea por 770 millones de euros a finales del año. Por su parte, CVC Capital Partners cerró el traspaso de la Universidad Alfonso X El Sabio (UAX) por 1.100 millones.

Esta compra directa y control de influencia de universidades privadas también es un modo de privatización indirecta de la universidad pública, ya que estas facilitan el acceso al mundo del trabajo asalariado a sus alumnos mediante contactos directos en las empresas que financian. Es así, que según el Observatorio del Sistema Universitario (OSU), entre 2011 y 2017 el abanico de grados ofertado por las universidades privadas aumentó un 51 %, mientras que el de las públicas apenas lo hizo en un 11 % ^[8].

Esta compra directa y control de influencia de universidades privadas también es un modo de privatización indirecta de la universidad pública, ya que estas facilitan el acceso al mundo del trabajo asalariado a sus alumnos mediante contactos directos en las empresas que financian

EL ASALTO A LA UPV/EHU

Finalizando la investigación en Euskal Herria, este reportaje se centrará en la principal universidad pública del territorio vasco, la UPV/EHU. Al ser esta última la que mayor cantidad de alumnos y financiación requiere, convirtiéndose en la universidad pública de referencia en Euskal Herria. Sin embargo, un mismo análisis se podría hacer de la Universidad Pública de Navarra (UPNA), en cuya fundación corporativa participan más de 50 empresas privadas locales y multinacionales, entre las que destacan el banco La Caixa o la empresa automovilística Volkswagen.

Volviendo a la UPV/EHU, vemos como la tendencia global descrita a lo largo de esta investigación se adscribe también a la universidad pública de los tres territorios de la Comunidad Autónoma Vasca mediante las palabras que anualmente en los actos de apertura de curso vienen pronunciando sus dos



La UPV/EHU tampoco se escapa al modelo que venimos describiendo en toda la investigación, ya que en el caso de la universidad pública vasca esta cuenta con una cátedra controlada directamente por Confebask, la patronal vasca

últimas rectoras. A principios del curso de 2019, Nekane Balluerka, anterior rectora de la UPV/EHU, reivindicó la necesidad de más financiación privada. «Desde esta óptica, para el desarrollo de la Universidad pública adquiere pleno sentido recabar también recursos del sector privado, a través de la prestación de servicios o contratos de transferencia, sin que ello deba condicionar en modo alguno la independencia de la Universidad», explicó Balluerka. Sin aclarar cómo se iba asegurar que los agentes de la burguesía a los que pedía implicación garantizarían la independencia de la universidad, algo totalmente contrario a las leyes más básicas del capitalismo.

La actual rectora Eva Ferreira, en una entrevista de abril de 2021, defendió el modelo de financiación pública con aportaciones privadas y abogó por lograr un incremento sustancial en la captación de fondos externos. Todo ello, con el objetivo de posicionar en un mejor lugar a la UPV/EHU en la pugna internacional por fondos de investigación. Lo que demuestra la acuciada necesidad de la universidad pública por integrarse en los circuitos internacionales del capital financiero, los que a largo plazo decidirán la pervivencia y futuro de la universidad, si esta quiere sobrevivir en un contexto de pugna capitalista global cada vez más agudizada.

Prueba de estas tendencias es el centro de fabricación avanzada de aeronáutica impulsado por la UPV/EHU y 39 empresas privadas del sector, ubicado en el Parque Tecnológico de Bizkaia en Zamudio desde el 2017. El proyecto cuenta con una inversión total de 16 millones de euros en financiación público-privada, de la que colaboran empresas del sector como ITP Aero, el Grupo WEC o la cooperativa vasca de máquina-herramienta Danobat. Bajo este proyecto, la UPV/EHU investiga en procesos industriales relacionados con la aeronáutica y transfiere directamente sus resultados a la industria que financia el proyecto. Un claro ejemplo de la privatización del conocimiento bajo el mando de ciertas corporaciones.

Centrándonos en las cátedras, la UPV/EHU tampoco se escapa al modelo que venimos describiendo en toda la investigación, ya que en el caso de la universidad pública vasca esta cuenta con una cátedra controlada directamente por Confebask, la patronal vasca. La Cátedra Confebask para el desarrollo del Nuevo Modelo de Relaciones Laborales, por su nombre oficial, tiene su sede en la Facultad de Economía y Empresas de Sarriko, y en ella el objetivo es «reflexionar sobre el nuevo modelo de relaciones laborales con el objeto de avanzar en la configuración y promoción de unas relaciones laborales modernas y co-

laborativas, plenamente adecuadas al contexto competitivo del siglo XXI». Lo que en el lenguaje de la burguesía no viene siendo otra cosa que flexibilizar las relaciones laborales y destruir todo marco sindical o resistencial que une a los trabajadores para imponer unas relaciones individuales entre empresario y trabajador a la hora de negociar las condiciones laborales.

Entre otras oportunidades brindadas por la UPV/EHU a la patronal vasca mediante esta cátedra, la confederación de los empresarios vascos puede facilitar prácticas de grado a aquellos estudiantes que la propia cátedra seleccione. Además, la patronal concede becas a los trabajos de fin de grado y máster que vea convenientes a sus intereses e influye en el currículum y las asignaturas impartidas en el grado de Economía o Empresariales. El director de esta cátedra incorporada a la UPV/EHU es Jon Bilbao, director del Área Jurídico-Laboral de Confebask.

Todo ello se da en un contexto en el que la UPV/EHU viene privatizando y devaluando las condiciones laborales de su personal laboral interno, mediante el uso de subcontratas o recorte directo de las plantillas laborales. A este respecto, tenemos el ejemplo paradigmático de las limpiadoras de la universidad, que pese a que la universidad pública vasca esté bajo mando político directo del Gobierno Vasco, la





M24
(WATSON GEBARA)

En los últimos años se han dado a conocer múltiples casos mediante los cuales las escuelas de ingeniería de la UPV/ehu tienen acuerdos y colaboraciones con diversas empresas con participación en la industria armamentística

institución universitaria subcontrata a sus limpiadoras mediante diversas empresas. Lo que supone que las limpiadoras, sector mayormente feminizado, cobren un 13 % menos que las limpiadoras propias de otros servicios del Gobierno Vasco; o que 40 % del sector tenga jornadas parciales y, por lo tanto, salarios parciales. Quizás la cátedra impartida por Confebask sobre nuevas relaciones laborales y las condiciones de trabajo que la UPV/EHU impone a sus trabajadores y trabajadoras internas estén estrechamente relacionadas.

Pero esto no es todo, quizás el caso más flagrante de colaboración con empresas privadas se dé en el ámbito de la investigación armamentística. En los últimos años se han dado a conocer múltiples casos mediante los cuales las escuelas de ingeniería de la UPV/EHU tienen acuerdos y colaboraciones con diversas empresas con participación en la industria armamentística para la investigación y para la realización de prácticas por parte del alumnado, tales como Sener o ITP. Esta última empresa, presidida por el ex ministro del PP Josep Piqué, es productora directa de distintas piezas para los cazas de combate del ejército de Arabia Saudí, con los que el ejército de la petromonarquía lleva ya más de ocho años bombardeando a la población civil yemení.

Además, la UPV/EHU colabora con la Plataforma Tecnológica Aeroespacial Española, mediante un acuerdo aprobado en el Consejo de Gobierno del 26 de enero de 2017. Entre los miem-

bro de dicha plataforma se encuentran TEDAE (patronal de empresas armamentística), INTA (organismo de investigación del Ministerio de Defensa), DGAM (Dirección General de Armamento y Material del Ministerio de Defensa) y diversas empresas dedicadas a la producción militar. De nuevo con el objetivo de que diversas empresas armamentísticas privadas –aunque en el caso de la industria militar esta siempre vaya a estar fuertemente subvencionada por el Estado– tengan incursión en la universidad y condicionen el conocimiento del alumnado hacia la industria de la destrucción ^[9].

CONCLUSIONES

De este breve repaso a la tendencia por la que las empresas privadas cada vez se encuentran más cómodas o en control directo de las universidades públicas se pueden extraer varias conclusiones políticas. La primera, y más evidente, es que en la actualidad cuesta caracterizar una distinción clara entre universidad pública y privada; dado que, con tal nivel de integración del capital privado en la universidad pública, es difícil comprender que esta opere como un órgano independiente de los intereses del capital y al servicio de toda la sociedad.

El capital privado controla directamente las universidades privadas, pero no es ninguna casualidad que cada vez controle directamente mayores áreas de la universidad pública. En mi opinión, esto se da por dos razones: una,

porque el estado capitalista nunca ha sido ninguna institución neutra y sus designios han estado ligados al del conjunto de la clase capitalista a la que según la coyuntura permite mayor control directo de sus órganos; segunda, porque en tiempos de crisis capitalista como el actual, y más en estados fuertemente deficitarios y de baja productividad como el español, a las distintas administraciones estatales se les hace imposible seguir sufragando el gasto social que supone entre otros el universitario, por lo que abren las puertas de manera aún más directa al capital privado para reducir costes.

Esta última es una tendencia que va a seguir agudizándose. Por lo tanto, tiene mayor urgencia que nunca replantearse toda la estrategia política en defensa de la universidad pública, entendida esta como si fuera un bien social neutro que preservar. Efectivamente, toca defender los intereses de la clase trabajadora en la universidad pública, pero no al modelo institucional educativo estatal burgués como tal. Todos los datos aportados aquí sirven para ver una tendencia hacia la evaporación de lo que un día fue, efectivamente, un reducto de ciertas cuotas de libertades políticas y académicas para sectores de la clase obrera. La estrategia socialista deberá pensar desde ya en el desarrollo del modelo de educación socialista, y eso se hace en consonancia con la defensa de los sectores de la clase trabajadora de la universidad pública, hoy en vías de extinción. ●

NOTAS

1 Para profundizar más en la sociología de la educación desde una perspectiva marxista recomiendo las dos obras clásicas sobre el tema de Mariano Fernández Enguita (observando críticamente ciertos postulados ideológicos del autor ambas pueden ser una buena introducción al tema): *Marxismo y sociología de la educación*, 1986, Akal, Madrid; *Trabajo, escuela e ideología*, 1985, Akal, Madrid.

2 Hablamos del informe titulado «Futuros objetivos precisos de los sistemas educativos» [COM (2001) 59 final], merece la pena consultarlo para entender las tendencias que hoy día aún perduran en el sistema educativo europeo en general.

3 Evans, G.R. (2001): «The Integrity of UK Academic Research under Commercial Threat», *Science as Culture*, 10 (1), pp. 97-111.

4 Klein, N. (2002): *No logo. El poder de las marcas*, Barcelona, Paidós, pp. 122-123.

5 El Sacapuntas (2020): «El ministro Castells: el tecnócrata hippie y su plan neoliberal para desmontar la Universidad pública», *El Salto*, 28 de mayo. Disponible online.

6 La ciencia actuarial es la disciplina que aplica métodos matemáticos y estadísticos para evaluar el riesgo en seguros, finanzas y otras industrias.

7 Landa, V. (2018): «¿Quién gobierna en la Universitat de Barcelona?», *IzquierdaDiario.es*, 24 de enero. Disponible online.

8 Sacristán, V. (2017): «¿Quién financia la universidad?», *Observatorio Sistema Universitario OSU*. Disponible online.

9 Gasteizkoak.org (2017): «La UPV/EHU cada vez más activa en la industria militar vasca y el militarismo (y el cuajo del lehendakari)», *Viento Sur*, 22 de septiembre. Disponible online.


KOLABORAZIOA

Hezkuntzaren masa izaera galbidean

42

Testua

Naiale Garin



Azken hamarkadetan, krisi kapitalistaren azeleratzearekin batera, langile klasearen bizi baldintzak okerragotu dira. Burgesiak, bere Kapitalaren metaketa geldotzen doala ikusirik, esplotazioa are gehiago gogortu du galdutako irabaziak berreskuratu nahian. Zentzu horretan, Kapitalaren metaketarako ezintasunak horretarako neurrien gogortzea ekarri du. Ofentsiba kapitalista horren adierazle dira gaur egun nagusi diren prekaritatea, langabezia eta murrizketak. Era berean, Ongizate Estatuaren desagertpena da, besteak beste, ondorioetako bat.

Krisi garaian sektore publikoak jasaten dituen murrizketa bortitzak medio, sektore horien errentagarritasuna sartzen da jokoan. Nola egin genezake ahalik eta kostu txikienarekin orduan eta etekin handiagoa lortzeko?

Ziklo ekonomikoaren edo kapital-metaketaren behar tekniko-produktiboen metamorfosia dugu erantzuna. Etorkizuna izango den horren aurrekariak martxan jartzen. Horren aurrean, gizartean motore funtzioa betetzen duen hezkuntza burgesa ere etengabeko aldaketa estrukturalak bizitzen ari da, Kapitalaren beharretara egokitzeko moldatzen, erreformatzen. Elite ekonomikoek gidatuko duten eta politikari profesionalek egikarituko duten prozesuan sakontzen.

Zeintzuk dira, ordea, transformazio prozesu horren ondorioz ditugun txanponaren bi aurpegiak?


Bada, hezkuntzaren elitizazio prozesua, eta horretatik bereizi ezin den ikasle langilearen hezkuntzarako sarbidearen ukazioa.

Beste hitz batzuetan esanda, hezkuntza gizarteko geruza geroz eta txikiago baten esku gelditzera bidean doa eta bere modernizazioaren atzean ezkututzen den egia elitizazio prozesuan ardazten da. Langile klasearen kanporaketan.

Finean, hezkuntzaren elitizazio prozesua gizartearen pobretze orokortuaren aurpegi bat gehiago da. Soldataren jaitsiera eta bizitzaren garestitzea lerroburu diren garaiotan langile klasearen bizi baldintzak geroz eta kaskarragoak dira, hezkuntza prozesua bere beharretara egokitzen ez delarik. Geroz eta gutxiago duen ikasle horrek, geroz eta gehiago ordaindu behar du bere ikasketa prozesua aurrera ateratzeko, bien bitartean, langabezia edo lan prekarioz jositako etorkizun iluna esperoan izanik.

Aipatutako kanporaketa, beraz, ezin dugu tasean edo matrikulazioaren kostuek betetzen duten iragazki paperean zentratu, baizik eta hezkuntzak proletariotzaren bizirauteko berehalako interesei aurre egiteko duen ezgaitasunean.

Gizartean motore funtzioa betetzen duen hezkuntza burgesa ere etengabeko aldaketa estrukturalak bizitzen ari da, Kapitalaren beharretara egokitzeko moldatzen, erreformatzen



Hezkuntza gizarteko geruza geroz eta txikiago baten esku gelditzera bidean doa eta bere modernizazioaren atzean ezkututzen den egia elitizazio prozesuan ardazten da; langile klasearen kanporaketan

Eliteengandik eliteentzako unibertsitate eredu batera bidean, Unibertsitateak eta horrek ezartzen dituen baldintza sozioekonomikoek, galbidera darama haren masa izaera


Unibertsitatea dugu esandakoaren lagin ageriena. Izan ere, urtez urte matrikulatzen diren ikasle berrien kopurua aztertzea besterik ez dago aipatzen ari garen kanporaketa zifrak ikusteko. Ikasturte hasierako albisteek aurreko ikasturtearekin alderatutako matrikulazioaren gorakadaz hitz egiten digute. Zer ezkutatzen da, ordea, zifra horien atzean?


Urtetik urtera igotzen den matrikulazio kopurua aurreko ikasturtean izandako igoerarekin alderatuz baxuagoa da. Hau da, urtez urte matrikulazioa hazten doan arren, urtetik urtera hazkuntza txikituz doa. Joera horrek jarraituz gero, hazkuntzaren malda negatibo bilakatuko da, urtez urteko matrikulazio tasa zuzenean baxuagoa izatera pasatu arte.


Zergatik da, baina, Unibertsitatea esandako horren guztiaren lagin argia?

Proletarizazio prozesu baten erdian muga sozioekonomiko agerikoak ezartzen dituen tresna delako. Graduon matrikulazioaren prezioek irisgarritasuna galdu dute gehiengoaren artean. Berau aurrera ateratzeko zailtasun handienak dituztenak (ikasketak aurrera ateratzeko lan prekarioak egitera behartuta dauden horiek) bigarren matrikulazioen prezioekin itoak dira. Hori gutxi ez eta ohiko gradu batek, jarraipena emango dion masterrik gabe, geroz eta pisu gutxiago dauka biharko egunean lan mundura txertatua izateko aukeren balantzan. Masterren prezioak (graduakoenen bikoitza edo altuagoak) geruza are finago baten esku daude. Horri guztiari beste hainbat elementu gehitu behar zaizkio. Izan ere, errealitate hori guztia, urte luzetako inbertsio handi bat da egunean bizi den horrentzat, inbertsiotik baino apustutik gehiago duen auzi bat. Etorkizunak emandakoa jasotzeko geroz eta zailtasun handiagoak erakusten ditu. Eta horra hor tamaina txikieneko poroen iragazpapeira. Unibertsitateak ez ditu geroz eta zabalagoa den gizarteko geruzaren beharrak asetzen. Geroz eta gutxiagoren eskura egon bakarrik ez eta geroz eta gutxiagok zabaltzen baitizkio eskuak. Eliteengandik eliteentzako unibertsitate eredu batera bidean, Unibertsitateak eta horrek ezartzen dituen baldintza sozioekonomikoek, galbidera darama haren masa izaera. Proletalgoa Unibertsitatetik kanporatua izaten ari da.

Hala ere, auzi horren guztiaren atzean bada zukutu beharreko hezkuntzaren beste aspektu bat; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Ziklo horretan kanporatzea eta horrek hartzen dituen formak ez dira hain agerikoak izaten. Horren adierazpen argiena ikasleen % 16k eskola uztea da, baina bestelako formak ere baditu.







Testuinguru honetan klase partikularrek aukera bat izateari utzi diote. Ez dira zailtasunak dituzten ikasleen errefortzu klaseak, ikasleriak ikasketa prozesuarekin aurrera egiteko oinarritzko bitartekoa baizik

Ziklo horretan hezkuntza prozesuaren eta ikasleriaren artean gertatzen den urruntasun eta deskonexio maila geroz eta handiagoa da. Ikasleak bere etorkizuna ezin irudikatu eta motibazioa handitzeko zeri eutsi ez dakiela egiten du aurrera. Horri aurre egiteko hezkuntza sistemak mekanismo koertzitiboen bitartez inposizioz eta bortxaz «mantentzen» du ordena. Hau da, hezkuntza sistemak ikasleriaren interesa pizteko duen ezgaitasuna zigor forman konpentsatzen du. Desatxikimendua atxikimendu bilakatzetik urrun inposizio bitartez eusten da.

Eskolek eta horietan aplikatzen den eredu pedagogikoak lan merkatuaren beharrei erantzuten diete, diziplinamendu laboraletik hasita ikasleak jasotzen duen edukiraino. Ikasleek duten lan kargak eta presioak antsietate maila altuak eragiten dituzte, eduki guztia ulertu gabe irenstera behartuta daude. Bien bitartean ezarritako ordena urratzen duen ekintza oro ikaslearen borondatean (edo borondate faltan), utzikieran eta arduragabekieran oinarritzen dute.

Ordenaren ezarpenerako mekanismo adierazgarriak dira kontrola eta autoritarismoa. Hona-koek ideologia burgesa transmititu eta gizarte kapitalista betikotzeko aukera ematen dute. Hortaz, harreman sozial kapitalistaren erreprodukziorako funtsezko mekanismoa dela esan dezakegu, urtez urte eta belaunaldiz belaunaldi betikotzea helburu duena.


Egun ikasketa prozesuarekin aurrera egiteko familien egoera ekonomikoa oinarritzko bermea da, eta proletalgoaren erosteko ahalmenaren galerak ondorio zuzenak ditu hezkuntza prozesuaren baldintza materialetan, horiek erabat baldintzatzen dituelako

Neurri horiek bikaintasuna lortzeko beharrek in justifikatzen diren arren, arazo estrukturalari erroko erantzuna ez emateak arazoa epe luzean areagotzea ekartzen du. Horra hor zigor legeen eta diziplina mekanismoen atzeko paradoxa. Horien bitartez ikasleen jarreraren eta erabakien gaineko kontrola lortu badute ere, ez dago urrunegi joan beharrik ikasleen oinarritzko askatasunen bortxak, hezkuntza prozesuaren eta ikasleriaren artean are handiagoa den distantzia sortzen duela ikusteko. Finean, arazoa betikotu eta inposatutako eredu horren baitan sartzen ez den ikasle oro ikasketa prozesutik baztertua izatea eragiten duena.

Errealitate berdinarekin beste adierazpen bat da klase partikularrena. Testuinguru honetan klase partikularrek aukera bat izateari utzi diote. Ez dira zailtasunak dituzten ikasleen errefortzu klaseak, ikasleriak ikasketa prozesuarekin aurrera egiteko oinarritzko bitartekoa baizik. Esanguratsuak dira oso gai horren bueltan Ikasle Abertzaleak egindako inkesten bitartez lortutako datuak, kasu konkretu eta isolatuak izatetik urrun joera orokortua dela adierazten dutelako. Izan ere, ikasleen % 67,15ek noizbait klase partikularretara joan behar izan dute, hau da, ikasleen ia hiru laurdenek. Eta ikasturte honetako datuei erreparatuta % 47,88k klase partikularrak jasotzen dituzte, ikasleriaren erdiak, alegia. Datu horiei jarraiki *Euteri.com* hezkuntza plataformak argitaratu zuen Espainiako Estatuan ikasleen % 44ek jasotzen zituztela.

Baina familia guztien gaitasun ekonomikoa ez da berdina eta sektore batek ez du klase partikularrak ordaintzeko adina baliabide. Izan ere, batez beste 700 euroko gastu bat dakarte. Beraz, klase partikularrak segregazio tresna gisa funtzionatzen dute. Aipatutako errealitatearen baitan, gaitasun ekonomikoa duten familien seme-alabek bakarrik egin ahal baitiete aurre aipatutako oztopo horiei. Egun ikasketa prozesuarekin aurrera egiteko familien egoera ekonomikoa oinarritzko bermea da, eta proletalgoaren erosteko ahalmenaren galerak ondorio zuzenak ditu hezkuntza prozesuaren baldintza materialetan, haoriek erabat baldintzatzen dituelako.

Auzi ekonomikoa, ordea, ez da klase partikularren ordainketara mugatzen, bere testuinguru orokorrari erreparatu behar diogu. Egun badirudi seme-alabak hezkuntza publikoan matrikultatzea lan erraza dela. Publiko izenak, ordea, ez du inondik inora ikasle sektore guztien hezkuntzarako sarbidea ahalbidetzen. INEK (*Instituto Nacional de Estadística*) aurkeztutako datuei erreparatuta hezkuntza publikoan ikasle batek batez beste 664 euroko gastuak ditu. Hau da, kuotak ordaindu behar ez izateak ez du esan nahi eskuliburuak, garraioa, *chromebook*ak, ikas-materiala, txangoak eta beste-lakoak ordaindu behar ez direnik. Familiek beren seme-alaben hezkuntza gastuan egin beharreko inbertsioak joera gorakorra izan du. 2004. urtetik ia % 50 igo da familiek inbertitu beharreko kantidadea, eta honakoa hezkuntzaren finantziazio publiko murritzten ari den testuinguru batean kokatu behar dugu. Espainiako Gobernuak adierazten duenaren arabera 2010. urtean Espainiak hezkuntzan 53.099 euro inbertitu zituen eta 2019an, berriz, 53.053 euro. Europar Batasuneko beste herrialdeekin konparatuta, Espainia da funts publikoetatik derrigorrezko hezkuntzari diru gutxien bideratzen diona.



Ikasle proletarizatuenak formakuntza maila ez kualifikatu batera kondenatzen dira eta, ondorioz, bizitza proletario batera

Geroz eta gutxiagoren eskutan gelditzen ari den hezkuntza sistemaren gaineko eztabaida erreala ez dago hitzarmen eta lege proposamenen ñabarduran, egungo ereduaren gaindipenean baizik

Finean, hezkuntza prozesua kostu ekonomiko handia da familientzat eta askok ez du nahikoa gaitasun horri aurre egiteko. Ikastetxeetako ikasleen parte-hartzea nabarmen baldintzatua dago bakoitzaren ezaugarri eta irizpideen bitartez. Horrela ikasleak familien egoera sozioekonomikoaren arabera sailkatzen dira. Horrek langile klasearen hezkuntzarako sarbidea mugatzen du, baita sektore bat kanporatu ere. Izan ere, maila sozioekonomiko baxuko ikasleak kalitate baxuko ikasketetara bideratuak izaten dira, ikastetxe konkretu batzuetan batuz eta horiek ghetto bihurtuz. Ikasketen emaitzak errealitate hori argi islatzen dute: goi mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean % 3,6koa da eskola uztea. Lehen mailako ikasketak dituztenen edo ikasketarik ez dutenen kasuan, ordea, % 39,2koa da, Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema (*Sistema Estatal de Indicadores de la Educación*) delakoaren arabera. Errepikapen tasekin egoera berdina erreproduzitzen da. *Evolución sociodemográfica del alumnado en Euskadi* ikerketak biltzen dituen datuen arabera A eta B eredu publikoetan ia % 50era iristen da, pribatuan % 16an

kokatzen den bitartean. D eredu publikoan % 19koa da, pribatuan % 7an kokatzen den bitartean. Formakuntza maila ezberdinek iragazki sozialerako funtzioa dute. Ikasle proletarizatuenak formakuntza maila ez kualifikatu batera kondenatzen dira eta, ondorioz, bizitza proletario batera.

Auziaren izaera estrukturala identifikatzeak eta seinalatzeak berebiziko garrantzia hartzen du erreformisten zirkuan. Geroz eta gutxiagoren eskutan gelditzen ari den hezkuntza sistemaren gaineko eztabaida erreala ez dago hitzarmen eta lege proposamenen ñabarduran, egungo ereduaren gaindipenean baizik.

Esandako guztiak norabide bat elikatzen du, hezkuntza elitizazioarena, zeinaren ondorioz proletalgoa hezkuntza prozesutik kanporatua izaten ari den. Erreformen bitartez blindatutako norabidea, legeen inposizioz egikarituta. Horren aurrean, arazoan betikotzea ahalbidetuko duten adierazpen oro borrokatu eta egungo ereduaren gaindipena ahalbidetuko duen hezkuntza sistema sozialistaren erakuntzari ekin behar diogu. ●

Errepresioa hezkuntza esparruan: azken urteetako kronika



Testua — **Mattin Aranburu**

Irudia — **Ikasle Abertzaleak**



Batak bestea dakar: langileriaren antolakuntza politiko independentea dagoen tokian errepresioa dago. Azken urteetan, Euskal Herrian, antolakuntza politiko iraultzailearen zabalkunderako espazio izan dira campus eta institutuak. Esan daiteke, akaso, egun Mugimendu Sozialista gisa ezagutzen dugunaren ernamuina ere hezkuntza esparruan hazi dela. Bide hori, ordea, errepresioak kateatutako bidea izan da, ezin bestela.

Euskal Herriko heziguneetan errepresioak hartu duen formaren errepaso bat da erreportaje hau. Aztergai dugun errepresioaren izaeraz eta hezkuntzan hartzen duen formaz ari da testua. Era berean, errepresio kasu konkretuen zerrendak lehen zatia ilustratzea du xede. Argitu behar da hemen emango den errepresioaren inguruko ezaugarritzea ez dela kontzeptualizazio bukatu batean oinarritzen. Izan ere, gertatutako esperientzia konkretuetan oinarritzen da, eta egiteke dagoen kontzeptualizazio horretan ekarpen bat izatea du xede, gehienez ere.

ERREPRESIOA

Errepresioaren gaiari heltzeko, auzia klase terminotan kokatuko dugu. Horregatik, errepresioa errepresio dela esateko, ez diogu biolentzia mailari erreparatuko, biolentzia maila batetik gorakoa ez dugu errepresiotzat joko automatikoki. Klase terminotan kokatu behar dugu, erreprimitzen dena langileriaren antolakuntza independentea baita, potentzial komunista duten adierazpenak, eta errepresioa, horien aurkako eraso sistematikoa.

Hainbat dira gaur eta hemen errepresioaz aritzeko kontuan izan beharreko elementuak. Horietako bi dira aurrean dugun proletarizazio prozesua eta atzean utzi dugun ziklo politikoa, Euskal Nazio Askapen Mugimendua-ren porrotarekin itxi dena.

Aurrera begira, egungo eta datozen urteetako errepresioaren forma eta intentsitatea metaketa krisi kapitalistari lotutako ofentsiba politikoak determinatuko du. Proletarizazio prozesu bat da krisi horren emaitza. Motzean, bizi-baldintzen okerragotze zabal bat eta horri lotutako kontrol sozialaren areagotzea eta errepresioa bizitzten ari gara. Joera hori zorroztea espero dezakegu datozen urteetan eta, nola ez, hezkuntza esparruan eragina izango du horrek.

Klase terminotan kokatu behar dugu, erreprimitzen dena langileriaren antolakuntza independentea baita, potentzial komunista duten adierazpenak, eta errepresioa, horien aurkako eraso sistematikoa.

Bestalde, beharrezkoa da azken urteak ziklo politiko baten amaieran eta beste baten hasieran kokatzea. Izan ere, ixten ari den ziklo politikoan errepresioaren eta horri erantzuteko hamarkadetan eraikitako aparatatu juridikoaren nolakotasunak eragin nabaria izan baitu, eta izaten jarraitzen du, gaur egun ere. Aldiro, Estatua egokien zaizkion elementuez baliatzen da errepresioa gauzatzeko, eta ENAMen urtetako borrokaren ostean tresneria juridiko polizial erraldoi bat geratu da.

Pentsatzekoa da epe labur-ertainean kontrol zorrotzak eta langileriaren antolakuntza independentearen ahuleziak oraingoz ahalbidetzen duten intentsitate baxuko errepresioa izango dela nagusi gurean. Horrek, ordea, ez du esan nahi atzeguardian intentsitate handiko errepresio baterako baliabide teknologiko, juridiko eta kulturalak indartzen ari ez denik burgesia. Horregatik, beharrezkoa da gaurtik hasita eskubide politikoen aldeko eta errepresioaren aurkako borrokari heltzea, borroka politikorako baldintzak beraiek baitira jokoan daudenak, eta horiek gabe ez baitago deus.

***Beharrezkoa da gaurtik hasita
eskubide politikoaren aldeko
eta errepresioaren aurkako
borrokari heldzea, borroka
politikorako baldintzak beraiek
baitira jokoan daudenak, eta
horiek gabe ez baitago deus***



ERREPRESIOA HEZKUNTZAN

Errepresioak gizarteko esparru ugaritan lur hartzen du. Hezkuntzan hartzen duen forma eta funtzioari bagagozkio, beharrezkoa da hezkuntzak gizarte kapitalistan betetzen duen funtzioa ere kontuan izatea. Garrantzi kultural handiko instituzioa da hezkuntza. Bizi ohitura eta ulermen marko burgesa, kosmobisio oso bat, langile masa handiengan txertatzea du besteak beste helburu. Era berean, langileriaren antolakuntza independentea indartzeko foku bat izan daiteke. Errepresioak foko horiek neutralizatzea du helburu, batetik, eta funtzio kultural garrantzitsua, era berean, bestetik.

Erreprimitzen dena antolakuntza independentea dela onartuta, horrek Euskal Herrian presentzia daukan hezkuntza esparruetako errepresioari erreparatuko diogu. Hortik kanpo geratzen da Lehen Hezkuntza. Ordea, Lehen Hezkuntzan ondorengo etape-tako errepresiorako oinarri ideologiko-kultural batzuk ezartzen direla gogoratu behar da, ikasleen otzantzea eta figura autoritarioen aitortza kasu. Etapa horrek, beraz, oinarri konduktual horiek ezartzeko funtzioa izango du errepresioari dagokionez.

Hezkuntzaren barneko azpi-esparruak definitzen jarraituz, funtsezko bereizketa bat da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Unibertsitatearen artekoa. Errepresioak hartzen duen forman ere badira ezaugarri bereiziak bi esparru horiek alderatzean. Eragina dute, besteak beste, bateko eta besteko ikasleen adin tartean, irakasle eta antzeko figura autoritarioekin ikasleek duten harremanak eta bakoitzean militantzia politikoak dituen ezaugarri ezberdinek.

Errepresioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilegoan

Bereizketa orokor batzuk egite aldera, errepresioarekin lotutako lau elementu aipatu ditzakegu Bigarren Hezkuntzan: kontrola, autoritarismoa, oinarritzko eskubide politikoen urraketak eta esku-hartze poliziala.

Errepresioa eta kontrola kontzeptualki lotzea beharrezkoa da. Izan ere, ez dira ordezkatu daitezkeen terminoak. Kontrola errepresioa ahalbidetuko duen baliabidea da, beharrezkoa den unean eraso eraginkortu edo ahalbidetuko duena. Heziguneetara etorrira, kontrolerako bi bide ohikoenak kamerak eta plataforma digitalak dira. INIKA, ALEXIA eta antzeko plataforma digitalen bidez, ikaslearen prozesu akademikoa zeharo digitalizatzen da, eta horrek aukera ugari ematen ditu informazioa biltegitratzeko eta kudeatzeko; berdin irakaslearen oharrak, faltak eta notak gurasoei zuzenean mugikorrera heltzeko edo Microsoft gisako korporazio handiek edukia proposatu eta Big Data elikatzeko. Hezkuntza prozesuaren efizientziaren izenean egin ohi den horrek ikasleen jarraipen totalerako aukera teknologikoak ematen ditu, eta, beraz, baita errepresiorako bidea erraztu ere. Plataforma digitalen bidez prozesu akademikoa kontrolatzen bada, kameren bidez ikasleen mugimendua kontrolatzea lortzen da. Oraindik ere Euskal Herriko institutu guztietan ez egonagatik, azken hamarkadan nabarmen igo da bideozaintza kamerak dituzten ikastetxeen kopurua. Bata zein bestea ikasle mugimenduaren borroka eta mobilizazio ugariaren kausa izan dira.

Autoritarismoak eta antolakuntza politikoaren aurkako jazarpenak indar berezia dute Bigarren Hezkuntzan. Jazarpen hori, askotan, pertsonala izaten da. Ikasleen infantilizazioak, figura autoritarioen indarrak eta figura autoritarioen eta ikasle-gurasoen arteko harreman gertukoak eragin nabarmena dute gisa horretako kasuetan. Hainbat izan dira dinamika politiko bat abiatu eta irakasle-zuzendaritza-gurasoen artean presio jasanezina pairatu duten ikasle militanteak. Izan dira publikoki salatu direnak, Tolosako Orixen 2019an eta aurten Gasteizko Ekialdean, adibidez. Baina, ziur, dozenaka izango dira sona hartu ez duten kasuak, institutuetan militantzia politikora gerturatu den edonork jakingo duenez.

Oinarritzko eskubide politikoen urraketekin biltzeko, grebarako, propaganda egiteko eta orokorrean militantzia politikorako baldintzen aurkako erasoei egin nahi zaie erreferentzia. Hala ba, ikasleek kontrolatu eta kudeatutako gelak ukatzea, kartelak eta pankartak jartzeko debekuak, greba eskubidearen urraketa eta adierazpen politikorako aukera kentzea dira hemen aipatu ditzakegun batzuk. Guztiak ere antolakuntza politiko independenteak indarra hartu dezan trabak dira azken batean.

Esku-hartze poliziala unibertsitate esparruarekin lotuago dagoela pentsatu arren, badira Bigarren Hezkuntzan ere aipatu ditzakegun kasuak, hasi Iruñerrian ohikoa den Espainiako Poliziaren presentziatik eta Bergaran iaz ikasleen mugikorrak miaztera sartu ziren polizietaraino. Argi dago institutuak ere ez direla poliziaren esku-hartzetik kanpoko eremuak.

Errepresioa Unibertsitatean

Bigarren Hezkuntzarekin alderatuta, badira ezberdintasunak. Autoritarismoak erlatiboki pisu gutxiago hartzen badu ere adin kontuak direla medio, esku-hartze poliziala eta oinarrizko eskubide politikoen urraketa are zorrotzagoak direla esan dezakegu.

Unibertsitatean kokatutako langile kontrolpeko espazioak bertan antolakuntza politiko independentea gartzeko bitarteko garrantzitsuak izan dira eta dira egun ere. Azken urteetan Leioako Gune Askea, Gurutze Gorria eta Printza hor daude, baita Gasteizko Ikasle Gela eta berriki albiste izan den Ibaetako Gunea ere. Azken hori, gainera, esanguratsua da antolatze beharrezkoa zuten espazio baten aldeko borrokan poliziak HEFA Fakultetetik kanporatu zituen ikasleei 20.000 eurorainoko isunak jarri dizkietelako.

Era askotako aldarrikapenak egin dira ikasle grebetan, eta ez dira guztiak ikasleen behar eta eskaeretara mugatu. Garbitzaileen grebarekin behin baino gehiagotan bat egitea da horren adibide, haien mobilizazioetan jarrera aktiboa izan baita askotan. Lankidetzaren horri, baina, ahal bezainbeste oztopo jarri dizkio EHUK, Gasteizen 2020/21 ikas-turtean kaleratze arriskuan egon zen ikaslearen kasuak ederki erakusten duenez. Grebako istiluetan parte hartzea leporatuta espediente akademiko bat ireki nahi izan zioten Farmazia Fakultateko ikasle bati ordukoan, eta kaleratzearekin mehatxu egin zioten.

Errepresio poliziala da Unibertsitatean, Bigarren Hezkuntzarekiko alderatuta, zorrotzen den bigarrena. Poliziaren presentzia campusean erabat normalizatzeraren bidean da, segurtasun enpresa pribatuetako zaindariak ez aipatzearren. Poliziaren esku-hartzerako joera areagotu da eta Unibertsitatea poliziarik gabeko gunea zeneko irudia bertan behera geratu da azken urteetan. Zuzeneko esku-hartzeek gain, ordea, izan dira bestelakoak ere. Horren adibide, 2019an Leioako bi militantek hilabetetan jasan zituzten jarraipenak, mehatxuak eta kolaborazio eskaintzak.



Poliziaren presentzia campusean erabat normalizatzeraren bidean da, segurtasun enpresa pribatuetako zaindariak ez aipatzearren



ERREPRESIOA HEZKUNTZAN, 2016-2022

Ondoren bildu dira azken urteetan Euskal Herriko heziguneetan gertatutako zenbait errepresio kasu, baita antolakuntza politikorako baliabideen eta eskubide politikoen aldeko zenbait borroka esanguratsu ere. Aipatu beharra dago egunerokoan jazotzen diren hainbat eta hainbat kasu hemen biltzea ezinezkoa dela, nahiz eta ez duten horregatik garrantzi txikiagoa antolakuntza politikoko independentea oztopatzeari dagokionez.

San Mameseko Fakultatean Herri Unibertsitatea hutsaraztea. 2016ko martxoa

San Mamesen dagoen Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan Ertzaintza sartu zen martxoaren 14an eta bertan lo egiteko prestatzen ari ziren 41 ikasleak kaleratu zituen. Itxialdia egin behar zuten hiru egun iraungo zuen Bilboko Herri Unibertsitateen egitarauari jarraituz, baina fakultateko zuzendariak poliziari deitu zion. Desalojatutako 35 ikaslek 25.535 euroko isunak jaso zituzten guztira, *Mozal Legea* oinarri hartuta.

Ikasle greba LOMCEn aurka. 2016ko martxoa

Gasteizen zortzi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak LOMCEn aurkako greba egunean. Horietako bat erietxeratu behar izan zuten buruko traumatismoarekin. Iruñean, Foruzaingoa manifestariei oldartu zitzairen, eta lau lagun atzeman zituen. Guztiak adingabeak ziren; desordena publikoak egitea egotzi zieten. Bilbon, berriz, eserialdi bat egin eta lau gazte identifikatu zituen poliziak.

Leioako 6ak aske. 2016ko apirila

Hain zuzen ere, azken hilabeteetan EHUK ikasle mugimenduarekiko indartu zuen errepresioa salatzeke manifestazio batean izan ziren atxilotetak 2016ko apirilaren 26an. *Ikasleon aurkako erasorik ez!* lelopean egindako protestan ikasle mugimenduak bost exijentzia egin zituzten EHUri: 2016ko martxoan Bilboko San Mameseko unibertsitatean atxilotutako ikasleei espediente diziplinariarik ez irekitzea (Herri Unibertsitateko itxialdian atxilotu zituzten San Mamesen); 2016ko martxoan atxilotu zituzten Gasteizko ikasleek aurkako salaketak eta gainontzeko neurriak bertan behera uztea; Leioako ikasle auziperatu baten auzian esku hartzea eta bere egoerari konponbidea bilatzea; EHUrako Ertzaintza sartu ez zedin behin betiko neurriak hartzea; eta fakultateetan zeuden indar polizialak kanporatzea. Ikasleak Leioako Erretoretzan sartzen ahalegindu zirenean Ertzaintzak indarrez atera zituen. Sei ikasle atxilotu eta auziperatu zituzten, eta orotara, hamabost ikasle baino gehiago zauritu zituzten ertzainek. Gertatutakoaren harira auziperatutako sei ikasleek *Leioako 6ak aske* dinamika abiatu zuten. Urtetan luzatzen ari da prozesu judiziala eta oraindik ez da epaiketa izan. Agintaritzari men ez egitea, agintaritzaren aurka atentatzea, desordena publikoak eragitea, lesioak eragitea eta iraintzea egotzita, 2019an deklaratu zuen sei kideetan azkenak.

Omenaldia Hernanin. 2016ko urria

Hernaniko Agustín Iturriaga institutuan 2016ko irailean Gudari Eguna-ren harira egindako omenaldia ikertu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak terrorismoari gorazarre egitea eta biktimak umiliatzea leporatuta. Ikasle, irakasle eta ikasle Abertzaleak antolakundeko ordezkariak deklaratu behar izan zuten.

EHUko Errektoretzarako hauteskundeak. 2016ko azaroa

EHUko Errektoretzarako hauteskundeak zirela eta, ikasle mugimenduak manifestazioa antolatu zuen Leioan, *Ikasle borrokaz, geurea erai-ki* lelopean. Manifestazioa hasi baino lehen, Guardia Zibilak geldiarazi egin zituen manifestaziora joateko asmoa zuten ikasleak Gasteiztik Leioara zeramatzaten bi autobus, eta hainbat ikasle identifikatu zituen. Leioan polizia-operazio ikusgarri batek campusa hartu zuen manifestazioa hasterako. Protesta hasi eta gutxira Ertzaintza ikasleei oldartu zitzaizen eta manifestari bat atxilotu zuen. Manifestazioaren amaieran, Errektoretzara gutun bat eramaten saiatu ziren ikasleak, baina sartzea galarazi zien Ertzaintzak. Kargak eta istiluak izan ziren ondoren, eta hainbat atxilotu.

San Mameseko Fakultatean Herri Unibertsitate Nazionala hutsaraztea. 2017ko otsaila

2017ko otsailaren 23an Ertzaintzak EHUren San Mameseko campusa hustu eta 203 ikasle identifikatu zituen. Herri Unibertsitatea egiten ari ziren ikasleek hutsarazte mehatxua jaso zutenean teiltatura igo ziren hori saihesteko eta han egin zuten asteazkenetik ostegunerako gaua. Ertzaintzaren presentzia handia izan zen. Hamabost furgoi baino gehiago izan ziren San Mameseko teilatuan zeuden 203 ikasleen kaleratzean parte hartu zutenak. 05:00ak aldera izan zen kaleratzea, ikasle guzti-guztiak identifikatu ostean.

Leioako Gurutze Gorriaren okupazioa. 2017ko abendua

Leioako campusean urte luzez abandonatuta egon ondoren, Gurutze Gorriarena izandako eraikina okupatu zuten ikasleek. EHUk, negoziatzeko edozein aukera baztertu ondoren, okupaziotik astebetera Ertzaintza bidali zuen eraikin barruko ikasleak kanporatzera, eta hondea-makinek urte luzez hutsik egon zen eraikina eraitsi zuten.

Greba eskubidearen aldeko borroka Arizmendi Ikastolan. 2018ko otsaila

Arrasateko Arizmendi Ikastolan greba eskubideak zituen mugak zirela eta, horren aurkako borroka bat abiatu zuen Ikasle Abertzaleak antolakundeak. IAren exigentziak ondorengoak ziren:

- Ikasleen % 25 deslotzea greba-deialdia bertan behera uzteko arrazoia ez izatea
- Etenaldiak egin ahal izatea grebako baldintza berberetan
- DBHko 4. mailako ikaskideek etenaldirako eta grebarako eskubidea izatea
- Greba egunak azterketa egun batekin bat eginez gero azterketa atzeratzeko eskubidea
- IAKo militanteek askatasunez egin ahal izatea beren lan politikoa ikastetxean

Arrasaten Ikasle Abertzaleak egingako baterajotze nazionalaren ostean zuzendaritzak aldarrikapeneko puntuak betetzeko konpromisoa hartzea lortu zen.

Leioako Printza Gune Autogestionatuaren okupazioa. 2018ko apirila

Leioako Achucarro ikerketa zentroko beheko solairua okupatu zuten ikasleek 2018ko apirilean. Bertan, adibidez, liburutegi bat, apunteen kolektibizaziorako espazio bat, ikasleen atsedenerako leku bat eta behar zutenak gaua pasatzeko leku bat atondu zituzten sartu bezain pronto. Salaketaren ostean, okupazioaren lehen egunetatik inguruan izan zen Ertzaintzak espazioa hustu eta ikasleak kaleratu zituen.

Gasteizko Ikasle Gelan Guardia Zibila. 2018ko ekaina

2018ko ekainaren 29an Guardia Zibilak ikasle mugimenduko hiru kide atxilotu zituen, terrorismoa goratzea eta biktimak umiliatzea egotzita. Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta egin zituzten atxilotetak, eta

polizia-operazioan EHUko Arabako campusean sartu ziren guardia zibilak, Ikasle Gelak miatu eta ordenagailuak eta bestelako materiala eraman zituzten. Guardia Zibilaren arabera, gela horiek «intentsitate askotariko ekintza biolentoak antolatze» erabili ziren, atxilotuei horrelakorik egotzi ez zieten arren. Gasteizko campusean antolatutako zenbait ekitaldirekin lotu zituzten atxilotetak. Zehazki, 2017ko irailaren 27an Gudari Egunaren kariatara egindako ekitaldia eta 2016ko martxoan eta abenduan egindako ekitaldiekin lotu zuen Guardia Zibilak polizia-operazioa.

Kaleratzeak Tolosako Orixek ikastetxean. 2019ko urtarrila

Tolosaldeko Autodefentsa Sareak (TAS) Orixek ikastetxeko ikas baldintzak hobetzeko borroka bat jarri zuen martxan 2019ko urtarrilean. Prentsaurrekoa bideoz grabatu eta zabaldu zuten. Bertan, indarrean ziren ebaluazio irizpideak aldatu nahi zituztela azaldu zuten. Bideoa publiko egin eta bi egunera zuzendaritzak zigorrak aplikatuko zituela jakinarazi zuen. Prentsaurrekoa egiteagatik klase egun bat liburutegian pasatu behar izan zuten ikasleek, ikastetxearen araudiak eskema moduan laburtu eta liburutegian murala egiteko. Horrez gain, araudian oinarritutako txostena sinatu behar izan zuten, barkamena eskatu eta ez zutela errepikatuko zioena. Txosten hori sinatu ez zuten bost ikasleak hiru egunez kaleratu zituzten ikastetxetik. Ikasleek zuzendaritzaren partetik negoziaketa erreal bat bideratzeko jasotako erantzun ezkorragatik eta ikasleek jasandako erreprezioagatik, otsailaren 22an, baterajotze nazional batera deitu zuen TASek Tolosan. Manifestazio amaieran, ikastetxe kanpoaldean, Ertzaintzak zazpi ikasle identifikatu zituen «agenteen susmoa pizteagatik». Bestalde, goiz guztian zehar Orixeko ikasleek ez zuten aukerarik izan klasetik ateratzeko, klaseak hasi eta amaitu arte ateratzea debekatua izan baitzuten, sarrera Ertzaintzaren lau furgonetak ixten zutelarik.

UIBk Ibaetako campuseko Zorroaga aretoa okupatu zuen. [...] Guztira 20.000 eurora arteko isunak iritsi zitzaizkien ikasleei









Unibertsitatetik kanporatua izateko auzibidea abiarazteko mehatxu egin zioten. Hainbat hilabetez luzatu ziren deiak zein jarraipenak, eta horrekin guztiarekin amaitzeko bide bakarra haiekin kolaboratzea zela esaten zioten

Txantreako Eunate ikastetxeko kameren aurkako borroka. 2019ko otsaila

Kameren aurkako borroka abiatu zen 2019an Iruñeko Eunate institutuan. Txantreako ikastetxean hamahiru bideo-kamera jarri zituztela-eta abiatu zen horiek kentzeko borroka. Iruñerriko Ikasle Autodefentsa Sareak deitutako baterajotze nazionalen 600 ikasle inguru bildu ziren, inguruko institutu guztiek ikasleei greba egiteko aukera ukatu arren. Maiatzeko kamera guztiak kentzea lortu zuten.

Ikasle Abertzaleakeko militanteei jarraipenak eta kolaborazio eskaerak. 2019ko uztaila

Kalez jantzitako polizien mehatxuak, jarraipenak, deiak, xantaiak edota kolaborazio eskaerak jasan zituzten ikasturtean zehar Leioako bi militanteek, udan egindako prentsaurrekoan azaldu zuten. Kalez jantzitako poliziek hainbat alditan behartu nahi izan zituzten haiekin toki isolatuetera joatera. Ikasturte hasieran Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean segurtasun langileen presentzia salatze-ko martxan jarritako dinamika baten harira izandako gertakari batzuekin mehatxatzen zuten bata. Unibertsitate-*tik kanporatua izateko auzibidea* abiarazteko mehatxu egin zioten. Hainbat hilabetez luzatu ziren deiak zein jarraipenak, eta horrekin guztiarekin amaitzeko bide bakarra haiekin kolaboratzea zela esaten zioten: izenak ematea, etorkizunean egin zitezkeen ekintzen berri ematea, etab.

Campus bereko ikasle bat izan zen errepresio polizialaren jopuntuan izan zen beste militantea. Ikasle pisuko atariraino joan eta preso politikoen aldeko ekimen bateko gertakarien harira mehatxu egin zioten: Unibertsitatetik kaleratzearekin eta isun batekin mehatxatu zuten. Ikasle mugimenduan zuen jarduna zela-eta, kontuz ibiltzeko esaten zioten.

UIBko militante bat kaleratze arriskuan garbitzaileak babesteagatik. 2020ko martxoa

Martxoaren 2an ekin zioten bost aste-ko grebari EHUK eta Hezkuntza Sailak azpikontratatuak garbitzaileek. Astebetera jakinarazi zuen Unibertsitateko Indar Batasunak EHUK ikasle mugimenduko kide bati mehatxu egin ziola espediente irekitzearekin, garbitzaileen greba babesteagatik. Hainbat ikasle eta garbitzailek agerraldia egin zuten Gasteizko campusean, mehatxuak salatze-ko eta gazteari elkartasuna adierazteko. Espediente ez irekitzea lortu zen azkenean.

Ibaetan lan politikoa egiteko espazio baten faltan. 2021eko otsaila

EHUK ikasturte hasieran ikasle mugimenduari jardun politikorako baliatzen zuen gunea kendu zion. Horren aurrean, UIBk Ibaetako campuseko Zorroaga aretoa okupatu zuen, eta bertan egon ziren dozenaka ikasle harik eta biharamunean ikasle guztiak identifikatu, miatu eta kaleratu zituzten arte ertzainek, operazio erraldoi baten bidez. Guztira 20.000 eurora arteko isunak iritsi zitzaizkien ikasleei.

Gasteizko Ekialdea institutuan militante bat kaleratzeko mehatxupear. 2022ko urtarrila

Gasteizko Ekialdea institutuan, urtarrilaren 29rako Gazte Koordinadora Sozialistak antolatutako manifestaziora deitzen pintaketak egitea leporatuta, militante bati kanporatzeko mehatxua egin zioten. Egun berean, Koldo Mitxelena institutuan IAKo militantziari propagandarik jartzea debekatu diotela salatu zuten.

Ibaeta: campus poliziala. 2022ko otsaila

Zorroaga aretoa desalojatu zuen polizia-operazioetik urtebetera, IAK eta UIBk unibertsitateko errepresio politikoa salatze-ko manifestaziora deitu zuten egun berean, Ertzaintza sartu zen Ibaetako campusera. Ikasleak hurrengo asteko mobilizaziorako propaganda bertaratu eta HEFA eta Psikologia fakultateetara sartu ziren. Miaketa lanak egiteaz gain, ikasle bat identifikatu zuten, eta isun batekin mehatxatu.

UIBk eta IAK deitutako mobilizazioaren bi eskakizunak poliziak campusera sarbidea debekatua izatea eta EHUK 2021eko otsailean ezarritako isunei aurre egiteko ardura bere gain hartzea izan ziren. ●

Argitalpena
2022KO MARTXOA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia


arteka

